



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko apirilaren 26an

35 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-240 Iruña-Jaca-Huesca errepide osoa autobia bihur dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da alargun-pentsioak berrikus ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitzak zaharberritzeko bulegoak jar ditzan oraindik horrelakorik ez dagoen lekuetan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Laguntza soziosanitarioari buruzko Plana egiterakoan, drogazaleei laguntza soziosanitarioa ematea ere kontuan har dadin. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat egin dezan toki ogasunen partaidetza fondoari buruz. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aintzat har dezan erakunde politiko eta sozialek Armada profesionalizatzeko prozesua azkartzeko egin duten eskaria. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskualdeko hirigintza arauak presta ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologi laguntza sar dezan osasun zerbitzuetan. Osasun Batzordeak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Agindua, ezgaitasunak jotako pertsonen aldira ematen zaizkien laguntzei buruzkoa, alda dezan. Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du soldadutza zein haren ordezeko zerbitzua egiteari uko egiteagatik epaiketa zain dauden auziak largestea nahi duela, bai eta epaituta daudenei amnistia eman diezaietela ere, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Toki Hitzarmen bat egitea erraz dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Belarki-laboreen Erregionalizazio Planaren aurkako errekurtsua jarri ez izanari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egin (10. or.).

—Ehizari buruzko plan estrategikoan ezarritako ekintzei buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres Foru Parlamentari jaunak egin (11. or.).

—Lurraldearen antolamendurako araei buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak egin (12. or.).

—Trafikoaren gaineko eskumenak eskuratzeari buruzko galdera, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak egin (12. or.).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

—Milagros Rubio Salvatierra foru parlamentari andrearen baja Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldean (14. or.).

—Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeko osaketa (14. or.).

—Askotariko Parlamentuko Taldeko osaketa (14. or.).

—Ohiko Batzordeetan Parlamentuko talde bakoitzari dagozkion batzordekideen kopuruaren aldaketa (15. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (16. or.).

—Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (16. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2000ko apirilaren 11n egindako Osoko Bilkuran, zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen

eta 2000ko urtarrilaren 31ko 10 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-240 Iruña-Jaca-Huesca errepide osoa autobia bihur dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko apirilaren 11n eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-240 Iruña-Jaca-Huesca errepide osoa autobia bihur dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-240 Iruña-Jaca-Huesca errepide osoa autobia bihur dezan

Nafarroako Parlamentuaren iritziz, N-240 Iruña-Jaca-Huesca errepide osoak autobidea izan

behar du. Hortaz, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sustapen Ministerioarengana zuzendu eta Parlamentuaren borondatea jakinarazi diezaion eta baita beharrezkoa dela borondate hori bere egin eta jadanik N-240 errepide berriaren aurreproiektuan isla esleitutako izatea.

Errepide handi horrek Nafarroako eskualdeen arteko (Irunberriko Pirinio Arroa, Erronkari ibarra, eta abar) garapen harmoniko eta orekatua ahalbidetu beharko du. Horretarako, ukituriko herri eta eskualdeei laguntza eman eta beraiek ere parte hartu beharko dute. Bideak Leireko mendizerraren inguruetatik joan beharko du eta, ahal den neurrian, ingurumenaren kalteak saihestuko eta gutxituko dira, bai eta obra handi horrek sor dezakeen ingurumen-inpaktua zuzenduko duten neurriak hartuko.

Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da alargun-pentsioak berrikus ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko apirilaren 11n eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da alargun-pentsioak berrikus ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da alargun-pentsioak berrikus ditzan

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu zentrala premiatzen du alargun-pentsioak igo ditzan, emakume eta gizon alargunen arteko pensioak berdinak izan daitezen estatu osoan –helburua emakume alargunei tratu zuzen eta berdintasunezkoa ematea da."

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitzak zaharberritzeko bulegoak jar ditzan oraindik horrelakorik ez dagoen lekuetan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

José Andrés Burguete Torres foru parlamentariak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitzak zaharberritzeko bulegoak jar ditzan oraindik horrelakorik ez dagoen lekuetan".

Biltzarrak, 2000ko apirilaren 11n egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 2000ko otsailaren 21eko 18 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Laguntza soziosanitarioari buruzko Plana egiterakoan, drogazaleei laguntza soziosanitarioa ematea ere kontuan har dadin

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Laguntza soziosanitarioari buruzko Plana egiterakoan, drogazaleei laguntza soziosanitarioa ematea ere kontuan har dadin".

Biltzarrak, 2000ko apirilaren 11n egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko otsailaren 21eko 18 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat egin dezan toki ogasunen partaidetza fondoari buruz

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentariak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat egin dezan toki ogasunen partaidetza fondoari buruz".

Biltzarrak, 2000ko apirilaren 11n egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 2000ko otsailaren 28ko 20 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aintzat har dezan erakunde politiko eta sozialek Armada profesionalizatzeko prozesua azkartzeko egin duten eskaria

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aintzat har dezan erakunde politiko eta sozialek Armada profesionalizatzeko prozesua azkartzeko egin duten eskaria".

Biltzarrak, 2000ko apirilaren 11n egindako

Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko otsailaren 28ko 20 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskualdeko hirigintza arauak presta ditzan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskualdeko hirigintza arauak presta ditzan".

Biltzarrak, 2000ko apirilaren 11n egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 2000ko martxoaren 6ko 21 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologi laguntza sar dezan osasun zerbitzuetan

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2000ko apirilaren 13an eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologi laguntza sar dezan osasun zerbitzuetan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologi laguntza sar dezan osasun zerbitzuetan

"Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentua premiatzen du hurrengo hauek egin ditzan:

1) Sei hilabeteko epearen barrenean, oinarrizko osasun laguntzaren eta osasun laguntza espezializatuaren barne sar dezala podologi laguntza, eta podologo lanpostuak betetzeko deialdia egin dezala prebentzio laguntza emateko, osasuna sustatzeko, arrisku taldeak zehazteko eta oinetako gaitzei tratamendu espezializatua emateko,

aurretik ezarritako arau eta irizpideen arabera laguntza-estandarrei jarraiki.

2) Lehenbailehen har dezala bere gain podologi laguntza osoa ematea 65 urtez gaindiko herritarrei Nafarroa osoan; hori egiteko oinarritzko osasun laguntzako zentroak erabil ditzala eta osasun laguntzako zentro espezializatuak, eta, adinduei laguntza hori emateko arazoak dauden lekuetarako, hitzarmenak egin ditzala podologiako espezialistekin.”

sun laguntzako zentroak erabil ditzala eta osasun laguntzako zentro espezializatuak, eta, adinduei laguntza hori emateko arazoak dauden lekuetarako, hitzarmenak egin ditzala podologiako espezialistekin.”

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Agindua, ezgaitasunak jotako pertsonen aldizka ematen zaizkien laguntzei buruzkoa, alda dezan

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeak, 2000ko apirilaren 13an eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Agindua, ezgaitasunak jotako pertsonen aldizka ematen zaizkien laguntzei buruzkoa, alda dezan”.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Agindua, ezgaitasunak jotako pertsonen aldizka ematen zaizkien laguntzei buruzkoa, alda dezan

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, hilabeteko epean, abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Agindua alda dezan, plazarik ez izateagatik eta ondorioz, Lanerako Prestatzeko Zentro batean edota Eguneko Zentro batean Egokitze Pertsonal eta Sozialeko Programa batean ez izateagatik, edo hezkuntza programa arautuak bukatuak ez izateagatik, senitartekoei soilik zaintzen dituzten ezgaituak laguntzetatik kanpo gera ez daitezen, bertan arautzen diren laguntzak berrantolatuz.”

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du soldadutza zein haren ordezkari zerbitzua egiteari uko egiteagatik epaiketa zain dauden auziak largestea nahi duela, bai eta epaituta daudenei amnistia eman diezaietela ere

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du soldadutza zein haren ordezkari zerbitzua egiteari uko egiteagatik epaiketa zain dauden auziak largestea nahi duela, bai eta epaituta daudenei amnistia eman diezaietela ere”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarro-

ako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo osoko bilkuran eztabaida dadin.

Agerikoa da derrigorrezko soldadutza desgertze arazoak. Are gehiago, hiritar asko luza-penak eskatzen ari da betebehari hori saihesteko. Horrela, gazteek ez dute zertan bete soldadutza edo gizarte zerbitzua. Kontestu soziopolitiko horretan, badira ebatzi gabeko zenbait auzi; alegia, soldadutzara joateari edo ordezkari zerbitzua (OGZ) egiteari uko egin zioten pertsona

askoren auziak. Duela gutxi, auzitegi militar batek epaitutako Nafarroako intsumiso bat atxilotu dute.

Horrenbestez, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak derrigorrezko soldadutzari edo ordezkari zerbitzuari uko egiteagatik epaitzeke dauden auziak largetzea eta epaitutakoei amnistia ematea nahi du.

2.- Nahi hori Gobernu Zentralari eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari helaraziko zaio.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Toki Hitzarmen bat egitea erraz dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Toki Hitzarmen bat egitea erraz dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketak Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinek aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko bozeramaile Juan José Lizarbek, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, mozio bat aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onetsi dadin. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Toki Hitzarmen bat egitea erraz dezan. Hitzarmen horrek aurretik ezartzen diren lege-maila eta edukiak izanen ditu, eta egin ondoren Nafarroako Parlamentuak eztabaidatu eta onetsi beharko du.

Hitzarmenaren azken helburua administrazio publikoen toki entitateak politika lehiakortasun eta finantza arloetan indartzea izan da.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ustez, toki entitateak dira administrazio egokienak herritarrei euren eguneroko bizitzako arloetan dituzten beharretan baldintza hoberekin laguntzeko, haien baitira herritarrengandik gertuen daudenak. Beraz, ordezkari politiko guztien betebeharia da udalei, ahalmen gehiago eta antolaketa eta bitarteko hobeak ematea, beren eginkizun "naturala" bete ahal izan dezaten.

Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateek eta beraien ordezkariak behin eta berriz adierazi dute toki entitateen arazoei aurre egin behar zaie la modu orokorrean eta komunitateko gainerako erakundeekin negoziatuz eta adostuz, eta hori horretarako sortutako formula baten bidez egin behar dela, alegia, Toki Hitzarmena izenekoaren bidez. Hitzarmen horri buruz, ez dago kontzeptio bateraturik, ez eta zein alderdi zehaztu behar diren bertan, zenbateko harremana izan behar duten administrazioek euren artean eta zeinek "prestatu" edo "sinatu" behar duten Toki Hitzarmen hori ere.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen iritziz, indar politikoek gehiegitan hitzegin dugu Nafarroako Toki Hitzarmen baten beharraz, baina ez da aurrerapausorik

eman berori zehaztu eta praktikan jartzeko. Beraz, bada garaia proposamen zehatz bat aurkezteko, hitzarmen hori egiten has dadin.

Horrenbestez, Parlamentuko eta udaletako Nafarroako herritarren ordezkarien eta arlo horretako adituen arteko eztabaida orokorreko prozesu horri hasiera emateko, betiere Toki Hitzarmenaren azken edukiari eta berorren prestaketa faseetan eta onespenean parte hartuko dutenei buruzko aurreiritzirik emateko asmorik gabe, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Biltzarreko Osoko Bilkurari proposatzen dio honako erabaki proposamena onets dezan:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Toki Hitzarmenerako oinarriari buruzko proiektu bat prestatzea erraz dezan. Prestaketa hori Nafarroako politika alorreko foru eta toki mailako indar politiko nagusiak ados jarrita egingen da, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak ezezik, toki politikaren alorreko gaietako adituek ere parte hartuko dute.

Nafarroako Toki Hitzarmenaren azken xedea administrazio publikoen toki entitateak politika, lehiakortasun eta finantza arloetan indartzea izanen da. Halaber, gure Komunitateko zenbait arazo historikori konponbidea bilatu beharko die, adibidez, toki entitateen mapa arazoizko bihurtzea eta udalena baino lurralde eremu handiagoetan udalez gaindiko enteen beharrari aurre egitea,

toki entitateen eskumenekoak diren arazoak konpontzeko.

2. Nafarroako Toki Hitzarmena prestatzeko prozesuaren lehen pauso gisa, Nafarroako Gobernuak Adituen Batzorde bat sortuko du, Nafarroako Gobernuaren Lehendakariordetzaren menpean. Batzorde horren helburua Nafarroako Toki Hitzarmenaren oinarriari buruzko proiektua prestatzea izanen da eta 2001 urteko urtarrilaren 1erako amaitua egon beharko du.

Batzorde hori gehienez ere hamabi pertsonak osatuko dute eta lehendakaria Toki Administrazio-kontseilaria izanen da, edo horretarako eskuordetu duena. Hori eratzeko, Nafarroako politika alorreko foru eta toki mailako indar politiko nagusiak ados jarriko dira, eta Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioak ezezik, toki politikaren alorreko gaietako adituek ere parte hartuko dute bertan.

3. Ondoren, Nafarroako Gobernuak Toki Hitzarmenari buruzko foru lege proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, eztabaidatu eta onets dezan. Halaber, adituen batzordeak prestatutako Toki Hitzarmenaren oinarriari buruzko proiektua praktikara eramateko beharrezko diren ekimen guztiak ere igorriko dizkio.”

Iruñean, 2000ko apirilaren 14an

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

F saila:
GALDERAK

Belarki-laboreen Erregionalizazio Planaren aurkako errekurtsua jarri ez izanari buruzko galdera*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 17an egindako bilkuran, Andrés Bastera Layana foru parlamentari jaunak belarki-laboreen Erregionalizazio Planaren aurkako errekurtsua jarri ez izanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak ahozko erantzuna eskatu du, Osoko Bilkuran emanen zaiona.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Bastera Layana jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, osoko bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Agropecuaria Navarraren batzarrean, Gobernuko Nekazaritza kontseilari Martinez Alfaro jau-

nak Belarki-laboreen Erregionalizazio Planaren inguruan zerealen nekazariak duten kezka baretzeko asmoarekin parte hartu zuen. Bertan esan zuen: "ez dadila honekin inor izutu, ez zaio ezer kenduko inori, baizik eta igoerarik izan ez duten eskualdeei etekina igoko zaie". Hala ere, Nafarroako Gobernuak ez du errekurtsorik aurkeztu Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak ezarritako Erregionalizazio Planaren aurka, eta ez dakigu zer ekintza egin dituen Nekazaritza kontseilariak nekazarien kooperatibek azaldutako arazoa konpontzeko. Horregatik guztiagatik, osoko bilkuran ondoko galdera ahoz erantzun dadin eskatzen dugu:

Zergatik ez du Nafarroako Gobernuak errekurtsorik aurkeztu Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministeriotik Nafarroari ezarri zaion Erregionalizazio Planaren aurka? Eta zer pauso eman ditu Nekazaritza kontseilariak Erregionalizazio Planak Nafarroako milaka nekazaritza-ustategiri sortutako arazoa konpontzeko?

Iruñean, 2000ko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Andrés Bastera Layana

Ehizari buruzko plan estrategikoan ezarritako ekintzei buruzko galdera

JOSE ANDRES BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 17an egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres Foru Parlamentari jaunak ehizari buruzko plan estrategikoan ezarritako ekintzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aurreko legegintzaldian Ehizaren Plan Estrategikoa onetsi zen. Helburua zen ehiza-jarduera areagotzeko bide berriak garatzea eta aldi berean naturaren kontserbazioa errespetatzea. Plan hark honako helburu hauek ezarri zituen: natur habitatatoko ehiza produkzioa areagotzea eta ehizari lotutako jarduerak garatzea; hartara, aztertu egiten dira ehiza-jarduerako esparruan dauden aukera berriak –natur baliabideengan eraginik izanen ez dutenak eta, hortaz, denboran eta espazioan hain mugatuta egonen ez direnak.

Ehizaren Plan Estrategikoan 1997-2007 urteetarako plangintza egin zen, eta urte horietariko bakoitzean ekintza ugari zen egiteko. 1999ko gastuen aurrekontua 82 milioikoa zen.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi da:

1.- 1999an egin beharreko ekintzen artean, 4 milioiko aurrekontua zegoen “Oihan Planetan ertzen tratamendua aintzat hartzea” dela-eta. Nola garatu da ekintza hori? nortzuk izan dira onuradunak?

2.- 1999an egin beharrekoen artean “barrutietan zaintzaileak –langileak trebatu, ehiza-fauna kudeatu eta Ingurugirozaintzarekin batera elkarlanean arituko direnak– jartzeko dirulaguntza” zegoen. Horretarako, planean 46 milioiko aurrekontua zegoen 1999rako. Lortu al da neurri horrek bilatzen zuen helburua? Zer barrutiri eman zaie zaintzaileak jartzeko dirulaguntza? Ehizaren planean aurreikusitako guztia gastatu al da?

3.- 1999an hartu beharreko neurrien artean, Foru Administrazioak aseguru-poliza bat kontratatzea zegoen, pertsonei eragindako kalteak eta ibilgailuen kalte materialak estaltzearen. Kontratu al da poliza hori? norekin sinatu da? Ehizaren Planean aurreikusitako bost milioiak gastatu dira?

Iruñean, 2000ko apirilaren 5ean

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Lurraldearen antolamendurako araei buruzko galdera

JOSE ANDRES BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 17an egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak lurraldearen antolamendurako araei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Administrazio publikoaren zeregina da botere publikoek artatu beharreko esparru eta sektoreen plangintza egitea. Lurraldearen antolamendurako arauak taxutzea izan da hainbat gobernuk egiteko utzi dutena, eta horrek erakusten du sektore publikoek ez dutela plangintza-politika bat eduki.

Nafarroako Gobernuak behin baino gehiagotan baieztatu du Lurraldearen antolamendurako arau horiek emanen zituela, eta inbestidurako hitzaldian "Gobernuaren politika sektorialak formulatzeko erreferentzia-gune izanen diren Lurraldearen antolamendurako arauen onespena" ekarri zuen hizpidera Gobernuko Lehendakariak.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi da:

1.- Gobernuko Lehendakariak inbestidurako hitzaldian hitz eman zuenari jarraikiz, hasi al ditu Nafarroako Gobernuak tramiteak Lurraldearen antolamendurako arauak taxutzeko?

2.- Zer Departamentuk du arau horiek prestatzeko ardura?

3.- Zeintzuk dira Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenak horri buruz?

4.- Plangintza-tresna hori taxutzerakoan, zeintzuk dira oinarrizko irizpideak?

5.- Arau horrek gure komunitatearen garapenean berebiziko garrantzia duen aldetik, prestatu al du Nafarroako Gobernuak biderik ukitutako eragileek ere parte har dezaten?

Iruñean, 2000ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Trafikoaren gaineko eskumenak eskuratzeari buruzko galdera

JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 17an egindako bilkuran, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak trafikoaren gaineko eskumenak eskuratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, Lehendakari eta Barne kontseilariak idatziz erantzun diezaioten:

Orain dela gutxi Estatuko Lehendakari Aznar jaunarekin egon zenean, 2001ean Nafarroak trafikoaren gaineko eskumenak eskuratu ditzakeela iragarri zuen Nafarroako Gobernuko Lehendakariak. Halaber, prest azaldu zen gure komunitatean

lan egiten duten guardia zibilak –hala nahi baldin badute– Foruzaingoan sar daitezten.

1.- Nafarroako Foru Komunitateko ordezkariak gure komunitatean bide-segurtasunaren arloan lan egiten duten guardia zibilak –hala nahi baldin badute– Foruzaingoan sar daitezten onartzea al da Nafarroak trafikoaren gaineko eskumenak eskuratzeko Estatuak jarri duen baldintza?

2.- Nafarroako Gobernuaren eta Administrazio-ko langileen ordezkarien artean berrikitan burutu den negoziazioetan gai hori eztabaidatu al da?

3.- Aukera hori gauzatzen baldin bada, zein arautan oinarrituko da?

4.- Orain dela gutxi, foruzainen zaindariaren egunean, Nafarroako Gobernuak Lehendakariak polizia horrek gure komunitatean egiten duen lan aparta goraiatu zuen. Bada, foruzaingoko sindikatuaren ustez, guardia zibilak besterik gabe foruzain bihurtzeak diskriminazioa dakar, hala foruzain izan nahi dutenei nola barne igoera lortu nahi dutenei begira. Ez al du gauza bera uste Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2000ko apirilaren 7an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Milagros Rubio Salvatierra foru parlamentari andrearen baja Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldean

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 13an eginiko bilkuran, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkezturiko idazkia, zeinaren bitartez Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldea utzi duela eta Erregelamenduak lege ezartzen duen egoerara iragan dela adierazten baitu, Biltzarreko Erregelamenduaren 34. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Euskal Herritarrok Parlamentuko Tal-

dea utzi duela eta orain sortu den Askotarikoa Parlamentuko Taldean sartu dela jakitun dagoela adieraztea.

Beraz, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak 7 kide izanen ditu aurrerantzean eta Askotarikoa Parlamentuko Taldeak, berriz, kide bat.

2. Parlamentuko talde horien osaketak izan dituen aldaketak Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara emateko agintzea.

Iruñean, 2000ko apirilaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués.

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeko osaketa

Milagros Rubio Salvatierra foru parlamentari andreak Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldea utzi du. Hori dela eta, ondoko kideak osaturik geldituko da aipatutako Parlamentuko Taldea.

Arbizu Goñi, Martín
Arroyo Leatxe, Igor
Barrena Arza, Joxe Fernando
Kiroga Astiz, Shanti
Muñoz Trigo, Pablo
Ortiz Egizabal, Aurkene
Puyo Rebollo, Félix José

Askotariko Parlamentuko Taldeko osaketa

Milagros Rubio Salvatierra foru parlamentari andreak Askotariko Parlamentuko Taldean sartu da. Hori dela eta, ondoko kideak osaturik geldituko da aipatutako Parlamentuko Taldea.

Rubio Salvatierra, Milagros

Ohiko Batzordeetan Parlamentuko talde bakoitzari dagozkion batzordekideen kopuruaren aldaketa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 13an eginiko bilkuran, Bozera maileen Batzarrari entzun ondoren, honako Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Batzorde Arruntak, aurrerantzean ere, gaur egun bezala, hau da, 14 foru parlamentarik osatuko dituztela zehaztea. Haietako bakoitzaren kideen kopurua honela banatuko da Parlamentuko taldeen artean:

- Unión del Pueblo Navarro 6 kide
- Socialistas del Parlamento de Navarra 3 kide
- Euskal Herritarrok kide 1
- Izquierda de Navarra/
Nafarroako Ezker Batua kide 1
- Nafarroako Demokraten Elkargunea kide 1
- Eusko Alkartasuna/
Eusko Alderdi Jeltzalea-
Partido Nacionalista Vasco kide 1
- Askotarikoa kide 1

2. Batzorde berezien osaketa, hau da, elkarbitzaren eta nazioarteko elkartasunaren Batzorde

Bereziarena, gazteentzako politika orokorrak aztertzeke Batzorde Bereziarena, Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna -beriziki A-15arena- aztertzeke Batzorde Bereziaren eta Nafarroako Foru Komunitateko lan istripuak aztertzeke Batzorde Bereziarena, hauxe izanen dela zehaztea:

- Unión del Pueblo Navarro 2 kide
- Socialistas del Parlamento de Navarra 2 kide
- Euskal Herritarrok kide 1
- Izquierda de Navarra/
Nafarroako Ezker Batua kide 1
- Nafarroako Demokraten Elkargunea kide 1
- Eusko Alkartasuna/
Eusko Alderdi Jeltzalea-
Partido Nacionalista Vasco kide 1
- Askotarikoa kide 1

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko apirilaren 13an

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2000ko apirilaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2000ko

martxoaren 29ko 27 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2000ko apirilaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori

2000ko apirilaren 7ko 31 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.200 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 ».</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 ».</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---